

Oinarri teknologikoko enpresak eta/edo enpresa berritzaileak sortzeko prozesuan laguntza emateko programa.

IV. ERANSKINA (BARNETEKIN).

Urtea: 2024 | Ekonomia Sustapena

Deskribapena

Ekintzaitza korporatiboaren bidez, Gipuzkoako enpresa-sarea dibertsifikatzen lagunduko duten enpresa-proiektu berrietan laguntzea, haren izaera eraldatzailean eta balio erantsi handian oinarrituta, eta arreta berezia jarrita EAEko RIS-3 estrategiarekin lerrotuta daudenetan (lehenetasun estrategikoak, aukera-eremuak eta zeharkako ekimen traktoreak).

Entitate onuradunak

Gipuzkoan helbide soziala eta fiskala edo egoitza duten pertsona juridikoak, eta oinarri teknologikoko enpresa proiektu bat edo enpresa berritzaile bat sortzeko ideia dutenak Gipuzkoan martxan jartzeko

Dirulaguntzen xedeko jarduerak

Oinarri teknologikoko enpresa edo enpresa berritzailearen ideia sortu, enpresa plana prestatu eta abian jartzeko prozesuan pertsonari edo ekipo bultzatzaileari laguntza ematea.

BIC GIPUZKOAK (Bic Gipuzkoa Berrilan eta Saiolan) babestuko dituen enpresa ekimenak.

Diruz lagundu daitezkeen kostuak

Diruz lagunduko diren kostuak ondorengoak izango dira:

- Enpresa esparruan edo proiektuaren araberako berariazko esparruan gaitasunak eskuratzea.
- Kanpo aholkularitza eta laguntza teknikoaren gastuak.
- Prospekzio azterlanak eta dokumentazioa.
- Azoketara joatea, bidaiatzea eta abar.
- Maketa eta prototipoak egitea.

Dirulaguntzen zenbatekoak

Dirulaguntza, kostu hautagarrien % 100 artekoa izango da, enpresa proiektu bakoitzeko 40.000 €-ko gehienezko mugarekin.

Dirulaguntza emateko prozedura

Dirulaguntzak emateko prozedura lehiakortasunik gabekoa izango da, aurrekontua agortu arte.

Dirulaguntzen bateragarritasuna edo bateraezintasuna

Dirulaguntzak hauek ez dira bateragarri izango Gipuzkoako Foru Aldundiak helburu bererako ematen dituen beste laguntza batzuekin. Aldiz, bateragarri izango dira Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk helburu bererako emandako dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin, betiere diruz



lagundutako jardueraren kostua gainditzen ez bada eta eragotzi gabe gai horren inguruan beste laguntza batzuen araudiak esaten duena.

Oinarri hauen arabera diruz lagundutako proiektua garatzeko dirulaguntza bat eskatzen edo lortzen duen entitate onuradunak horren berri eman beharko dio Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuari.

Betetzeko epeak

- Eskaerak aurkezteko epea: **2024ko urriaren 22an, eguerdiko 13:00etan** bukatuko da.
- Jarduerak hasteko epea: **Jarduerak 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasiko dira.**
- Proiektuen exekuzio data: **2025ko irailaren 30ean.**
- Proiektuen justifikazio data: **2025ko urriaren 31an.**

Araudi aplikagarria

Enpresak sortu eta garatzeko prozesua sustatzeko programa.

IV-ERANSKINA: Oinarri teknologikoko enpresak edo enpresa berritzaileak sortzeko prozesuan laguntza emateko dirulaguntzen oinarri bereziak.

«[Enpresak sortu eta garatzeko prozesua sustatzeko programa](#)»ren oinarri arautzaileak (GAO 126 zk. 2022-07-04).

«[Enpresak sortu eta garatzeko prozesua sustatzeko programa](#)»ren 2024ko deialdia (GAO 91 zk. 2024-05-13).

Eskaera egiteko urratsak

- Informazioa eta dokumentuak:
<http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/ekintzaitetasuna/barnetekin>
- Dirulaguntzak kudeatzeko aplikatiboa:
<http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>

Edozein zalantza izanez gero, kontsultatu

EKONOMIA SUSTAPENeko zerbitzua

Telefonoak:

- Kudeaketa Teknikoa: 943 – 112287
- Kudeaketa Administratiboa: 943 – 112218

sustapena.ekintzaitetasuna@gipuzkoa.eus